# 1916

## Lekeitioko ereserkia




LUAU1530/01

**Feliciano Beobide (1888-1956)**
Lekeitioko musika bandak zuzendari ilustreak izan ditu, euren artean Feliciano Beobide. 1907an aurkeztu zen lehenengoz bandako zuzendari postura baina gazteegia zen eta Miguel Oñatek irabazi zuen orduan. 1915ean lortu zuen lanpostua eta 1916an konposatu zuen Lekeitioko banderaren martxa hori. Udalak apirilaren 29ko bilkuran Lekeitioko ereserkitzat hartu zuen[1].

Urtero-urtero jotzen da bandera ateratzen den egunetan. Ez du *Altza Gaztiak* kantaren ospea lortu baina berau da, *Anteron Txamarrotia*ren baimenarekin, Lekeitioko kanta edo ereserki "ofiziala".

1921ean Lekeitiotik alde egin zuen *Euskal Musikaren Argitaletxea* zuzentzeko. Ez zen erraza Lekeitioko musika bandako zuzendaria izatea eta ez dugu gehiago esango, Fernando Garateak atera behar duen artikulua irakurri beharko duzue.

1 LUA/Udal aktak, 1916-4-29: "A continuación propuso el Señor Cincunegui que en vista de la dedicatoria del himno ó marcha á la Bandera del Señor Director de la Banda Municipal de Música de que se dió cuenta en Sesión de veinte del actual, y teniendo en cuenta que se trata de una Composición de gusto y adecuada al objeto, debía acordarse dicha marcha como himno oficial de la Villa; y así se acordó".



Lekeitioko Udal Artxiboa (LUA)